



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-03-21

VIIURTEA 1.659.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

CARMEN FERRO EMAGINA

## «Bizitzan dagoen maitasun istoriorik politenetariko da edoskitzea»

**TOLOSALDEA** Amatasunera prestatzeko eskolak ematen ditu bikoteentzat Ferrok Tolosan eta Villabonan

**FUNTSEZKOA** «Bizitzako ikasgairik zailena» dela dio, baina «maitasunez eta sentimenduz jokatzera» animatzen du 4-5



15 lagunek osatutako japoniar talde batek Tolosa bisitatu zuen atzokoan; Alde Zaharrean gidari eta guzti ibili ziren. E.E.

## ATZERRITARRAK HIRIRA ETA BERTAKOAK LANDA EREMUETARA

**TOLOSALDEA** Jai egunak aprobetxatuz kanpotar batzuk eskualdea bisitatu dute; bertan geratu direnek natura bilatu dute oro har 6



E. EZEIZA

JESUS ARANZEGI, IBON ARTOLA ETA MANU ODRIOZOLA

## «Kapitalismoaren funtzionamenduaren ondorio zuzena da krisia»

**TOLOSALDEA** 'Euskal Herria Sozialista' aldizkariko kideek «langileen borroka irtenbidea» dela diote 2



sarrerak

saridunak

**Bruesa GBC  
Kalise Gran Canaria**

Igandea • Martxoak 22  
12:30ean • Donostiako Ilunben

Olatz Olaetxea (Tolosa)

sarrerak Hitzaren egoitzan  
harpidedun txartelarekin



TXOKA hitza

## E Elkarrizketa

JESUS ARANZEGI, IBON ARTOLA ETA MANU ODRIOZOLA › Euskal Herria Sozialista' aldizkariko ideak

## Sozialismoa »

Krisiaren jatorria, ondorioak eta irtenbideak aztertu dituzte.

N. URBIZU - R. CALVO

Euskal Herria Sozialista aldizkari-ko Jesus Aranzegi, Ibon Artola eta Manu Odriozola kideek argi dute: «Zapalkuntzarik gabeko gizarte bat daugaku irabazteko eta ez gara konformatuko gobernu eta enpresari-ek emandako limosnekin». Krisiaren erroa «merkatua ez dela gai ekoiztu den guztia kontsumitzeko dela» diote eta «irtenbidea sozialismoa eta langileen eta herritarren borrokaekin soilik» lor daitekeela.

**Batzuk finantza-krisia bezala definitzen dute, sistema beraren krisia dela diote beste batzuek... Zein da zuen irakurketa?**

Orain dela ez horrenbeste krisi gehiago ez genituela izango esaten ziguten kapitalismoaren ekonomistek. Sistema kapitalista, existitu daitekeen sistema ekonomikorik perfektuena zela sinestarazi nahi ziguten. Baina Marxek aspaldi eman zuen kapitalismoak dirauen artean gertatu diren krisi ekonomikoaren azalpen eta deskribapen zientifikoa osatu bat. Ekonomikari burgesek kapitalismoaren funtzionamendu ordenatu eta logikoari buruz margotu nahi diguten koadro idilikotik urrun, marxismoa ekoizpen kapitalistaren izera anarkikoa dela azaltzen du. Ez da ekoizten eta banatzen herritarren beharren arabera, gutxiengobaten interes ekonomikoaren arabera baizik. Zergatik? Bankuak, enpresak, fabrikak gutxiengo baten eskutian daudelako. Gutxi batzuk dira denoi eragiten diguten erabakiak hartzen dituztenak. Kapitalismoa eta bere krisiak elkari erabat lotuta daude, sistemaren funtzionamenduari ondorio zuzena da gaur gertatzen ari dena.

**Non dago krisiaren oinarria?**  
Arazoaren oinarria ez da likidezia falta, kreditu falta, konfidantza falta edo AEBetako hipotekak. Gehiegizko ekoizpenaren krisi klasikoaren ondorio besterik ez dira. Dirudienez kapitalismoaren ekonomiariek krisiaren ondorioak krisiaren arazoekin nahastu nahi dituzte. Horrela, gorde nahi dute krisiaren arduraduna kapitalismoa bera dela. Oinarritzko arazoa da merkatua ez dela gai ekoiztu den guztia kontsumitzeko. Kapitalistek irabazi azkarrago eta handiagoak dituzten adarretan inbertitzen dute, eta kapitalisten dirugoseak mugarik ez izan arren, prozesu honek muga objektiboak ditu. Gehiegizko inbertsio bat sortzen da eta merkatua produktuz saturatzen da salmentak zailduz, etxebizitzekin gertatu dena adibidez. Azken batean, gehiegikeria



Aranzegi, Artola, eta Odriozolaren ustez, «langile borroka da irtenbide bakarra denon bizi baldintzak hobetzeko». E. E.

## «Krisia kapitalismoaren funtzionamenduaren ondorio zuzena da»

bat sortu da eta merkatuak ezin du dena xurgatu. Hemendik aurrera, krisi fase bat hasten da, kapitalisten irabazi tasen erorketa, inbertsio eza, langileen kaleratze masiboak, lantegien itxierak... Arazoa ez denontzat ez dela ailegaten; krisi kapitalisten paradoxa da inoiz baino produktu gehiago daudela merkatuan baina herritarrek ez daukate-lan hauek erosteko ahalmenik. Gosea handitzen ari den bitartean milioika tona elikagai usteltzen ari dira enpresari- en biltegi- eta etxebizitza arazoa ikaragarria den bitartean milioika etxe berri daude hutsik.

**Langileok, zer egin beharko genuke kolektibo moduan?**

Azken urteetan irabazi ikaragarriak izan dituzte enpresari eta bankari-ek, eta bitartean herritarren gehiengoaren lan eta bizi baldintzek okerrera egin dute. Baina kapitalismoaren krisi guztietan egin duten bezala gure gainera bota nahi dituzte krisiaren ondorio guztiak. Krisi hau eskapatu nahi dute bezalako izango da langile askorentzat. Gizartea garatzeko gai ez dela ikusiko dute sistema ekonomiko hau, bankariak eta enpresariak deslegitimatzeko prozesua azkartuko da, «merkatu askearen» azpikeria azaleratuko da, estatutu burgesaren eta bere aparatu errepresiboaren aurpegia garbiago ikusiko da eta politika errefor- mistaren alternatiba eza inoiz baino ageriago gertatuko da. Batzuk langileen borrokan konfidantzarik ez duten arren, konfiantza dugu krisiari aurre egiteko langileak antolatuta eta mobilizatu egingo direla. Hegoaldera ere etorriko dira greba orokorrak.

**Zein izan beharko litzateke, sindikatuen papera honetan?**

Sindikatu- en papera oinarritzkoa da krisiari aurre egiteko. Mundu osoan zehar sindikatu eta sindika- lista gehienek politikak akordio so- ziala izan da eta horren ondorioz langile mugimenduaren konkista historikoak eta eros ahalmena gal- du dira. Sindikatuak langileen in- teresak defendatzeko sortuak izan

**«Krisiaren ondorioak arazoekin nahastu nahi dituzte kapitalismoaren ekonomiariek»**

ziren eta gaur ere langileek sindi- katu borrokalariak behar dituzte. Ez dugu sekula onartu behar sindi- katu batzuetako zuzendaritzek eta hainbat sindikalistek langileen bo- rroka antolatzeko gogo falta. Diru- dienez gustura daude euren pos- tutxoekin eta kapitalismoarekin, baina ez dituzte batera gustuko bo- rroka egin behar dela esaten duten langileak. Horrelako sindikalistak langileen interesen etsiak dira. Sindikatu-ek langilearen aurka- ko eta enpleguaren aldeko progra- ma langile guztietara eraman be- harko lukete, hauek antolatuko eta krisi honen aurka greba oro- kerra antolatzeko sindikatu guzti- ek batera. Oso zaila da lanpostuak en- presa defundatzea. Arazoa berdina bada, langileen in- darrak biderkatuko litzateke mobi- lizatu bateratu eta koordinatuekin.

**Eta Patronalaren papera?**

Langileek ez dute konfidantzarik eduki behar hauengan, egin du- ten guztia kapitalisten interesak defendatzeko izango da. Hauen

helburu bakarra kaleraketak mer- ketzea, soldatak jaistea eta antzeko neurriak hartzea da.

**Ezin ahaztu Gobernuaz. Zein izan beharko litzateke lehentasuna?**

Ikusi dugu munduko gobernu- ek zer egin duten, eskuinekoak edo sozialdemokratik izan. Milioika euro oparitu dizkiete kapitalistei hauen negozio espekulatzailak konpontzeko. Ekintza honek be- rarak erakusten du ekoizteko in- darraren jabea pribatua oztopo bat dela giza garapenerako. Zer egin- go luke benetako gobernu irau- lutzaila batek? Bankuak, monopo- lioak eta krisian dauden enpresak nazionalizatu eta langileen kon- trolepean jarri, ez kapitalistenean azken hila beteetan egin duten be- zala; diru publiko lanpostuak mantentzeko eta herritarren be- harrak asetzeko erabili eta ez ban- rroki oparitzeko; azpiegitura so- zial, etxebizitza, hezkuntza eta osasun publikoan inbertsio pro- grama handiak aurrera eraman... Horrelako neurriak soilik egin daiteke aurre krisiari. Baina Iba- rretxe eta Patxi Lopezek ez dituzte horrelako neurriak bultzatuko. EAJ euskal kapitalisten alderdia da eta PSEeko agintariak, nahiz eta sozialistak direla esan, kapitalisten zerbitzariak dira. Herritarrek inoiz baino garbiago ikusiko dute EAJ eta PSEko agintarien beneta- ko aurpegia. Ibarretxe edo Patxi Lopez izan lehendakari, langile eta herritarrek ez dugu konfidantza- rik izan behar hauek hartuko di- tuzten erabakietan. Langileen eta herritarren borrokaekin soilik lortu daitezke lehen esandako hel- buruak.

**Krisialdi honen ondotik ere langi-**

**leen eskubideak murriztuko al dira?**

*Manifestu komunista* jartzen du kapitalistek nola egin dieten aurre krisiei. Batetik, ekoizteko in- darrak suntsitu langabezia handituz, eta bestetik, merkatu berriak kon- kistatu eta merkatu zaharra orain- dik eta gehiago esplotatu. Horrela, kapitalistek krisi gogor eta luzea- goak prestatzen dituzte etorkizu- nerako. Patronala, enpresen eta gobernuen helburua langileen es- kubideak murriztea izan da azken urteetan ere hainbat sindikaturen laguntzarekin. Diru xurgatzaile hauengatik balitz umeak lanean jarriko litzukete beste herrialde- tan bezala.

**Kapitalismoaren berraketaz hitz egin dute...**

Krisi garai guztietan hitz egin izan dute kapitalismoaren refundazio- az. Kapitalismoa ezin da refunda- tu. Kapitalismoa ekoizteko in- darraren jabea pribatuen oinarritzen da eta honen ondorioz ezinezkoa da munduko milioika biztanlek sortzen duten aberastasuna denon beharrak asetzeko erabiltzea. Ban- kuek, fabrikek eta latifundioek gu- txibatuzeren eskutan jarraitzen du- ten bitartean ez da sekula posible izango mundu honetako arazoak konpontzea. Baina horretarako ekonomia planifikatu bat behar dugu, ekoizten eta banatzen dena planifikatzeko. Eta honetarako be- harrak dira herritar guztien par- te-hartzea munduko baliabideen kontrol eta kudeaketa demokrati- koan. Beharrezkoa da beraz kapi- talistak espropiatzea eta gizarte sozialista berreraikitzea.

**Langileen borroka agintari-ek au-**

**«Konfiantza dugu krisiari aurre egiteko langileak antolatuta eta mobilizatu egingo direla»**

**rrerikutsitako planak aldatu ditu?**

Egunerik ematen dizkiguten datuak aurrekoak baino okerrago- ak dira. Krisi hau oso larria, sakona eta luzea izango da. 1929ko *craka*- rekin konparatu daitezke hainbat gauzetan krisi hau, eta konpara- zioa konparazio, ez dugu ahaztu behar 1929ko *crack*ak Bigarren Mundu Gerra ekarri zuela. Baina krisi latz honek beste aurpegi bat du, langile klasearen borrokan gorakada nabarmena. Garai histo- riko berri baten aurrean gaude eta kapitalistei erakutsiko diegu ez gaudek euren erasoak inbertsio- prest. Beraiek ere beldurtuta dau- de krisiak izan ditzakeen ondorio-ekin. Ez daukagu dudarik langile- en borroka ez direla alferrik izan- go, are gehiago, irtenbide bakarra eta denon bizi baldintzak hobetze- ko modu bakarra zapaldua gau- den herritarren borroka izango da. Zapalkuntzarik gabeko gizarte bat daugaku irabazteko eta ez gara konformatuko gobernu eta enpre- sari-ek emandako limosnekin.

# Kantaflor, estilo propioa

**Ibarra** » Lehen lana salgai dute jada eta orain bigarren CD bat prestatzen ari dira; abesti indartsuak egiten dituzte, soinu «potentekoak».

REBEKA CALVO

Zaila da Ibarra Kantaflor taldearen musika inon katalogatzea, euren ez dute batere argi: «estilo librea dugu», diote erdi txantxetan. «Batzutan oso abesti heavyak ateratzen zaizkigu, gogorak, eta beste batzuetan berriz, suabe-suabe doazen abestiak etortzen zaizkigu», dio Txemak, ahotsa eta teklatuak jotzen dituen donostiarra. Kantaflor, beste talde asko bezala, autoprodukzioan sinesten du, jotzea dute gustuko, beste artifiziorik gabe, «jo eta jo, horrela aritzen gara, ateratzen zaigunari forma eman eta lokalean ematen ditugu orduak», dio Josu ahotsak.

Kantaflorren lehen lana, maketa, entzuten duenak zazpi kantu aurkituko ditu, kantuetako batzuk 80. eta 90. hamarkadetakoa hevyia ekarriko diote burura, rock kutsua duten abestiak ere topatuko ditu eta baita «musika klasiko» ñabar-durak ere. «Ahotsetako batzuk, sintetizadoreekin egindakoak, musika klasikoak ekartzen dute burura», dio Txemak. Maketa Tolosako hainbat tabernetan erosi ahal da 5 euroren truke, tartean Denak, Raku eta Eguzki tabernetan eta Zumbeltz dendan; Ibarra ere Atarin eta Gaztetxean erosi ahal da eta Donostian Donosti Rocken ere eskuratu ahal da.

Taldea lau lagunek osatzen dute; aipatu Txemak eta Josuk eta baita Juanan baxu-jotzaileak eta Tortxogitarrak ere. «Tortxo taldearen arima dela esan dezakegu», dio Josuk. Izan ere, Tortxok egiten ditu normalean abestiak, «lokalean ideia bota eta denen artean ematen diogu forma abestiari», dio Juananek. Maketaren grabaketak ere Tortxok egin ditu eta horrela ikasi du, gainera, grabaketak nola egin. «Ordu pila bat eman zituen ordenadorearekin eta azkenean osolan fina egin zuten, ikasi ere egin

zuen. Grabaketa guk egin genuen, hemen, lokalean, eta ondoren Doctor Masterrek egin zuen masterizazioa, honek gainera genituen bitartekoekin osolan txukuna egin genuela esan zigun», dio Txemak.

## Modu naturalean

Modu naturalean egiten dutela lan diote, «ateratzen zaigun bezala, askotan maketako grabatutako abestiak entzutean berriz ere ikasi egin behar izan ditugu», gaineratu du teklatuak. Letrei dagokionez ere ingurua dute inspirazio iturri: «Letra pertsonalak dira, gertatutako bizipenetan oinarritutakoak, gehienak, ingurura begiratu eta ikusten duguna islatzen dugu gure letretan», dio Josuk.

Jarioa dute, gainera, maketa kaleratu eta bigarren lan batean ari dira lanean eta. Hori bai, batera bat behar dute, «premiakoa da». Orain erritmo-kaxarekin aritzen dira, soinu potentea lortzen dute, baina «kontzertuetarako behar dugu, ea inor animatzen den, orain arte saiakera batzuk ere egin ditugu, baina honek lana eskatzen du eta pertsona egokia behar dugu», diote. Baterijoleak izan behar dituen baldintzen berri galdetuta ez dute oso zaila jarri: «Bonbo bikoitza kontrolatzeko».

Batez ere kontzertuekin disfrutatzen dutela diote taldekideek, baina badakite panorama nahiko ilun dagola: «Urteekin aldatzen joan da zuzeneko kontua. Gaztetxeen zirkuitoan mugitzen gara gu, batez ere, eta horrela kontzertu batzuk eskaintzeko modua dugu, baina Udaletxeen kontratazioarena beste kontu bat da...».

## Lehen kontzertua, 'Dia'-n?

Estilo pertsonala dutela argi dago beraz, bai musikari eta baita letrei dagokionez, baina jotzerakoan ere badute berezitasunik. Kontzertu



Kantaflor taldea bigarren diskoa grabatzen ari da; hurrengo kontzertua Txapin Festan izango da, Tolosan. AMAIA PAGOLA



Txema, Josu eta Juanan taldeko partaideak entsegu lokalean. R. CALVO

bakoitza jaia da beraientzat eta eskainitako lehen kontzertua da horren adirazle. Garai hartan Gari izeneko baterijolea ere aritzen zen taldean eta Leitzako Dia supermerkatuan eman zuten kontzertua, «oso berezia izan zen». Kantaflorren bitxikeriak.

Izena ere nahiko bitxia dela esan daiteke, zer jotzen duten ez dakie-

nak «auskalo non katalogatzen gaituzten!». Izen berezia nahi zuten, «ez komertziala», eta entzundakoa gogoan hartzeko horietakoa, buelta asko eman zioten eta azkenean afari batean atera zen izena: Kantaflor.

Eskaini dituzten kontzertuen artean Gaztelun orain gutxi arte zegoen lokalean emandakoa dute

gogoan, oso giro ona izan zuten-eta, baina herrian, Ibarra, Gaztetxean eskainitakoetan ere oso ondo aritu izan direla diote.

Datorren hitzordua, oraingoz, maiatza aldean izango da, Tolosan izango den Txapin Festan eta orduko bigarren laneko abestiak ere eskaini ahal izango dituzte, gainera.

## Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

### MARIA OTEGI GOIKOETXEA

Jaiuna  
(Vicente Lazkanoren alarguna).  
Herenegun hil zen, 76 urte zituela, Eizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Amona:

Beti umoretsu, beti alai  
bizi ginen elkarrekin.  
Izan zinen bezalako  
izateagatik,  
eskerrikasko



Zure bilobak eta birlobak: Axier, Isabel, Olatz (†), Arkaitz, Xabat, Adur, Uxue, Eñaut, Miriam, Alaitz, Javier eta Lucia. IBARRAN 2009ko martxoaren 21ean Bere aldeko hileta elizkizuna Ibarra SAN BARTOLOME parroki eliztan izango da, arratsaldeko SEIT ERDIETAN. Aldez aurretik mila esker.

### MARIATXO OTEGI GOIKOETXEA

Agurizeba.  
Gaurko malkoak ez dira zure ondoan edukitzen genituenaren berdinak.

Bizi garen artean edukiko zaitugu gogoan alai izan zaren bezala.

agurizeba zure iloba guztiaren aldetik bihotzez muxuak.



TOLOSAN 2009ko martxoaren 21ean

### Elkarrizketa

**Gizarte»** Villabon eta Tolosan amatasunera prestatzeko eskolak ematen dizkire bikote askori, «fase hori sakona eta osoa» izatea naia du.

**NOLIA LATABURU**  
Guraso izatez, haur bot izatea erabakitzen dituenek haurra osorako ihilbidea iri ekiten diote. Carmen Ferrak (Bartzelona, 1958) «haurra osorako ihilbidea zailena dela aitortzen du eta haurdunaldian hastenduz ihilbidetara emaitza ematen du eta sentimendu jokatzera» animatzen du bere eskolatan.

**Zer da zure eskolatan erlazaturik duzuna?**  
Erzilgaitzatzen erlazaturik daren prestatzeko dituzte, ez baita hori bakarrik lantzen. Amatasunera prestatzen satiatzen naiz. Horretarako lau puntu nagusi lantzen ditut.

**Azaldu puntu horiek banaka.**  
Batek, informazioa ematen dut, baina era zabalena, ez bakarrik erdi-ozonera; haurdunaldia eta, erdi-ozonera, erdi-ozondo eta bizitzeara, hain zuzen. Besteak, gorpuztat lantzen dit, bikoitean egiten dugu, jende gehiagun bikoitean erortzen baita hona.

**Eta azken honetan zer arketak egiten dituz?**  
Hosen baitan, arketak fisikoak, arnasketa arketak, gerrialdiko masak eta masa perinatalak, eriazko arketak eta bultzatzen dituzte arketak. Honekin batera, sor ditezkeen beharrik eta zalarraz lantzen ditut.

**Azken hau da zailena?**  
Angi dago eskolatan aldo garrantzitsua dela hau, umearen etorreraren aurrean gurasoek behar dugari sortzen zaizkela, baina haurdunaldian, bizi erdizetan, bizi erdizentziazko gogor eta zailak.

**Laugarren puntu bat ere aipatu duzu.**  
Bai, azken honetan, bikotea berreskuratzen satiatzen naiz. Hori honen gizonaren inplazazioa ere lantzen dut. Esaterako, haurdunaldian umea estimatzen, harrekin hitz egitea... Hau guztia zertarako? Gizonak haurdunaldian sentimendua ateratu behar du.

**Izan ere, badiuzu aitarien gogoren gaitheko mugan gertatzen dela...?**  
Bai hala da, liburutetan, aldizkarietan, eskolatan, interneten, dokumentuetan... Ni, ordea, oso garrantzitsua iruditzen zaiz. Hemen erakutsi nahi diet portakite izateko, informazio gehiago edukiz gero, gehiago ardatzatu dezake.

**Zer esango zenieko, beraz, aita horiek?**  
Hona erortzeko aita izateko duten eskubidearengatik, ez bete behar irratengatik. Izan ere, berek ere istorioaren parte dira. Amak alde



**CARMEN FERRO** » Emagina

**Edukitzea berreskuratzen ari al da?**  
Egun gazteak direnen gurasoen artean —40-50 urtekoak— zabaldu zen ibilbidearen kultura, amara berarena baino hobegoa zela zioten batzuk. Egun, in formazio gehiago dago eta edukitzearen garrantzia eta ahaltsa izaki zabaldu ari dira. Hala ere, oraindik ez dago adostasunik profesionalen artean.

**Zeintzuk dira abantaila horiek?**  
Uf, bizi bizi du: doakoa da, erosoa da, berri duzu eskura, ekizu berriaren zerbiztatzen da, tempo etara egokian, garbi, bitartekorik gabe, ontzi politenak, naturarengana eta

**Gizonzkoak aita izateko eskubidea ere badu, berrak sentimenduzk atara ditzan satiatzen naiz**

**Umeak esaten diguna gehiago entzuten jakin behariko genuke, erlaurik hainbeste begiritu gabe**

**Haura maitasunez eta eren senen hezitzen dituenak ziur eraztuz egokiak topatuko dituela**

ekologikoagoa da, osasuntsuagoa da, faze bakoitzera egokitu dago, aldatu egiten da umearen beharren arabera; halaber, amaren beraren erreoperazioan laguntzen du, bai umeakizina, bai sekearen, amekia izateko aukera gutxiagotzen, erdizentzen ondorengo deprezio ekiditen dira, 9 hilabetez izan duten loturaren spurketa hori mantasogogien delako ihilbideetan zehar, bion psikologian laguntzen du; bular edo umeetiko mihibiz gartuzko aukera gutxizten dituela ere ditut. Naturan guztia gogina dago edo ez ditzateko.

**Hainik, guztia aukerako dago zabaldua, hau da, biberioa erosogoa dela.**  
Erosogoa? Bulara ateratzea, be-tze, erosogoa da. Amazada gurtia kononotzen erakutsi dugutela, lehen, bigarren eta hirugarren egiten behar dena zer den erakutsi dugute, neurten, kaltetzen... Bularreko esnea ezin da neurtu; orduan, jendeak nahigodun biberoia prestatzeko emen beharkeko puzogurtiak bete (farmaziaz jone, biberoia, totina eta ura prestatu, berotu, temperaturatu, astindu... ) hau bai neurten delako. Nahigodun izatean da lan hori gurti hartu zere zertaz jarraitzea baino.

**Ordentzaki bizi gara, beraz.**  
Bere bai larra ez da zailagoa edo deserosoago, baina ez du orduragirik. Gaitontzeko ugarturiek abantaila hori dute, ez dute erlauririk eramanen. Sentitzen dutenarekin nahiko dute. Baina gure hezkuntza dela eta horek deskon-

# «Edukitzea bizitzan dagoen maitasun istoriorik politena da»

handia ateratzen diete aitari, ez bakoitza sartzen duteneko.

**Gizarteak ez du gehiagi lantzen, beraz.**  
Trikirik neskak pampinela jasutzen du, ume tsikiak zaintzen dutenak, abestu eta dantzetan ditu, sentimendua azalartzen ditu. Mutirik, ordea, sentimenduak azaltzeko hegalek moztzen zaizkio ezin du negarri egiti, dantza egiten denean ere moztu egiten diote, gogora izan behar da, Barruan dituen emozioak ezin ditu ateratu hori positibiztatzei.

**Bularra maitasunez ere berebiziko garrantzia ematen duzu.**  
Bai, asko lagundu daitake amaganon. Bai, asko lagundu daitake amaganon. Bai, asko lagundu daitake amaganon.


**Eta zer bikote mota erortzen da zuregan?**  
Oron har, lehen umeekin erortzen dira bikoteak, tarteka bigarren eskubidearengatik, ez bete behar irratengatik. Izan ere, berek ere istorioaren parte dira. Amak alde

dei ditzen jarraitzeko eskaera egiten diet, laguntza behar izanez gero. Izan ere, behar izatekoak baina edozikite gurtuzko dago, informazio faltar delako. Edukitzearen maitasun istorioa da, bizitzaren goien politenarikoa. Horrengatik garrantzitsua iruditzen zaizt izozki hau gaitze.

**Baina kasu askotan amari oso zaila egiten zaio bularra ematean.**  
Egia da gaitzeak ez dela gehiagi laguntzen, baina ikazit gero alda da. Lanbidea edo bizimodura egokitzaren ohitzea da. Biberoia prestatzeko ere antolatzen egiten behar zara, bada, bularrarekin berdina da. Horregatik nire laguntza osoa ezin izate dela aitak eta emaztea izan dalen egokitze prozesuaz har ez lan dauen, umeonakoa den... Baina printzipioz emakumeak nahibada posible da.

### Lidertza defendatuko du bihar

## Transportes Lakuntzak Gasteizen



Manex Castro eta Mikél Garmendia bilabonatarrek gogoa izan zituzten Joan den astelehenetik.

**Villabona** » Durangoko Sasiakoren aurka irabazi egiti zuten larunbatean; garailpena Garmendiarri eta Castorri eskaini zieten.

#### IBIRAKOAK

Transportes Lakuntzak sailkapenean lehen postuan jarraitzen du, joan den astelehenetik, Sasiako 5-4 irabazi ostean. Bilhar, humegorak-darekin duen diferentzia mantentzen saiatuko da gasteizarren aurka duen norgehiagokan, lehenbiziko aldia jandunaldia Arabako hiriburuko Judimendi kiribidean izango da. Sailkapeneko ziken postuean dand: eraberrak, baina hala ere, partidu gogorra izango dela uste dute Transportes Lakuntza.

**Behar hori eraldia da, egiti behar dena da behar hori nola egiti.**  
Erdizentz ordu batzuk dira, gero ume haur izateko osoa da. Beste, egoteen aurrean nola egiti daitelen. Puzozkoak da behar horiek aurre egiten jakitea, ume informaturra egitea.

**Nahiko informazio bai al dugu?**  
Oron har, niregan erortzen diren gazteak moribatu daudela erortzen dira. Ni, igertzen dui informaturra dugu. Guregan informazio asko dago, baina hau txukunduz egiten behar da eta batez ere, nik informaturri abiatu baino moribaturri abiatzen nahi lan egiteko. Batzutan hainbeste informazio sentimendua alde batera uzten dira.

**Guraso izatearen irakgaitzen ez dago azerketarik.**  
Betizan da bizitzan dagoen ikasgaitzik zailena. Batzuk ez dira gehiagi prestatzen, eta beste batzuk asko.

**Eta nola gaituz?**  
Maitasunez, maitasunez eta zure senan sinestuz. Naturak egiti esaten digula sinestuz eta gaitentzen eratzaren gure buruen dugulajakinda. Nik hona erortzen direnei sinestaz ten baliatzen erantzungetikena beti euren buruen dutela ziri ogingi erantzungetikena. Ugun guztiek ongizaintzen dituzte euren bukemak, internet gabe, se narekin baki.

**Bi taldeen hasiera, eriritio eskasaren kizoa.**  
Ezzen, Villabolako Oskaketa kiribidean jokatuz zuten joan den larunbatean Transportes Lakuntzak-koek, Aurkari, puntu berdinak, lider zen Durangoko Sasiako taldea. Hala, birarrogatik zen berzia norgehiagoka. Batek, sailkapeneko lehenbiziko postu hori jokoan zegoelako, eta besteak, Manex Castro eta Mikél Garmendia-ak eta kideei omenaldiak egin zituelako.

**Eriritio gaitzerik, eta baloia gaitzeko beharrezko hasi zuten jokoa Vi taldek.**  
Baina minutuak aurrera joan alada, bi taldeak zuten jokoa gaitzerik, eta baloia gaitzeko beharrezko hasi zuten jokoa Vi taldek. Baina minutuak aurrera joan alada, bi taldeak zuten jokoa gaitzerik, eta baloia gaitzeko beharrezko hasi zuten jokoa Vi taldek. Baina minutuak aurrera joan alada, bi taldeak zuten jokoa gaitzerik, eta baloia gaitzeko beharrezko hasi zuten jokoa Vi taldek.



# Menditik, iraupen luzeko eskira

Atsemasu » Sagain elkarteek hainbat itiera antolatu dituzte hurrengo urtean. Joan den astelehenetik, 40 pertsonentzat dago gorteta lekuo, eta oraindik izena emateko aukera dago.

egituzte Soporten. Hilaren 28an itterago dira Atsemasu eta Canfran-eko atterean igaroko dute gausa. 40 pertsonentzat dago gorteta lekuo, eta oraindik izena emateko aukera dago.



Tokioko bisitariak hiriguneako eta mendebaldekoak ziren: Euskal Herrian 9 egun pasatzera etorri dira eta atzo Tolosa bisitatzera etorri ziren. ESTI EZEIZA

## Atzerriko bisitariak hirira eta bertakoak landa eremuetara

**Asia** » San Joseko zubia dugu aurten eta jende askok lau opor egun jarraian ditu; gure natura inguruek eta atsedan lekuek nabaritu dute.

### E. EZEIZA - N. URBIZU

San Jose Eguneko zubirik ez da urtero izaten, baina egoten denean, kalean nabari da. Batzuk mendira joateko aprobetxatzen dute, batez ere bertakoek, eta bitartean, kanpotarrak hurbiltzen badira, askotan herriak ezagutzeko izaten da. Atzokoan, esaterako, Japoniako herritar talde bat hurbildu zen Tolosara eta Alde Zaharra ezagutu zuten, gidari eta guzti.

Bertako jende asko mendira igotzeko aprobetxatu ditu egunak eta baita egin duen eguraldi bikaina. Kirola egiteko aukera alde batera utzita, inguruan ditugun hainbat atsedan leku bete egin dira: Larraitz, Languarre, Kutturru, Izaskun... Hala ere, bizikleta hartu zuen jende asko zebilen hererengun, motorzaleak bezala.

San Jose Egunean Larraitzera joandako jendetza azpimarratu dute bertakoek: «Aparkatzeko ia

arazoak izan zituen jendeak, lepo zegoen». Atzo ere jendea bazez, baina ez zen hainbeste.

Krisia, beraz, ez da asko igerriguruan. Jendeak etxetik ateratzeko gogoia zuela ikusi da egun haueetan; nola gelditu etxean halako eguraldi sanoarekin?

### Tokioko 15 lagun bisitan

Tokioko 15 bisitari izan genituen Tolosan atzo. Euskal Herria ezagutzeko helburuarekin etorri ziren eta guztira 9 egun pasako dituzte gure artean. Zehazki, Donostian eta Hondarribian egingo dituzte gauak. Orain arte, «osogustura» daude japoniarrak.

Euskal Herria ezagutzera etortzearen arrazoi nagusia gastronomia izan da, janaria hain zuzen. Horrela saltzen omen dute Euskal Herria, turistak erakartzeko. Beste tokiotar batek Euskal Herriko kultura ezagutu nahi zuelako etorri

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Baseria.** Alkizan baseria alokairuan. Txukun-txukuna, bi logela, sukalde ederra, egongela eta komuna; berritua. 3 solairu ditu, bi terraza 30 m<sup>2</sup> eta 20 m<sup>2</sup> dituena. Lursaila etxe aurrean, 5.000 m<sup>2</sup>. 700 euro. Telefonoa: 619 349 385.

📧 **Elkarrizketa digitalak.** Zein pertsonai nahiko zenuke elkarrizketatu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunearen bidez? Elkarrizketa digitalak egiten ditugu tarteka: dagoeneko zazpi daude irakurgai webgunean eta irakurleen proposamenei erantzuten ahaleginduko gara. Kike Amorraritz, Inaxio Perurena, Jokin Beldarratz, Garbiñe Biurrun... dituzu irakurtzeko. Ia bada: zein da zure proposamena?

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

dela adierazi zuen. «Oso kultura berezia, desberdina da euskaldunena beste kultura batzuekin konparatuta. Txapela ere oso famatua da Japonian eta badakigu hemen egiten direla».

### Gastronomia, erregea

Bestetik, gaur elkarte gastronomiko batera joango dira eta bertan izango dituzten jakiak dastatzeko irrikitan zeuden atzo. Paisaiaren aldetik antzekoa omen da Tokioko, Japonia irila bat baita eta mendia eta itsasoa daukate eremu txikiaren ere. Dena dela, gustukoak izan dituzte ere hiria apaintzeko zuhaitzak, «almendrondoaren oso antzekoak dira asko».

Gehien harritu dituen zera da: elkarte gastronomikoetan eta sukalde gehienetan gizonetzakoak daudela: «Tokion emakumezkoak dira sukaldean aritzen diren ia guztiak eta hemen alderantziz gertatzen da». Horri, euskararen trastera gehitu behar zaio: «Euskaraz jakitea behartzea lanean aritzeko, adibidez, arraroa egiten zaigu. Albesteei dagokienez, Euskal Herri-tik iristen zaiena ET Aren presentzia eta herri kirolak dira.

Ez dute zalantzarik: Euskal Herria ezagutzera etortzeko gomendioa luzatuko dute euren herrialdean, «oso gustuko baitute».



Larraitz, atsedanleku batzuentzat eta beste batzuentzat Txindokitik jaitsi ondoren, indarrak hartzeko lekua. N. URBIZU



Alagian Languarre parkea San Jose egunean. Bertan jateko mahai proposak daude. I. GARCIA



**E Elkarrizketa**

**MADDI AMIANO** Judoka



E. MAIZ

# «44 kiloz azpitik mantentzeko ia egunero pisatu beharra daukat»

**Altzo** » Kadeteetan jokatu berri den Euskadiko Txapelketa irabazi du eta Espainiakoan berriz junior mailan hirugarren postua eskuratu du.

**ENERITZ MAIZ**

Maddi Amiano (Altzo, 1993) judoka gazteak 12 urte daramatza judo praktikatzen eta duela bi urte tik oso emaitza onak lortzen ari da. Bere mailan, kadeteetan eta aurtentzen, baita junior mailan ere.

**Nolatan aukeratu zenuen judoa?**

Nire anaia gomendatu zioten judoan hastea eta berak ez zuen bakarrik hasi nahi inor ez zuela eza gutuko eta. Egun batetik bestera ni hasiko nintzela bota nuen eta biok hasi ginen talde berdinean Tolosan. Ondoren adina eta pisuagatik taldez aldatu nintzen eta hasieratik oso gustura nabil.

**8 urterekin jolas moduan hasiko zinen. Eta orain?**

Nik beti judoa jolas moduan ikusi dut. Gero pixkanaka-pixkanaka irakasleak lehiaketa batera edo bestera joan nintekeela eta lehiatzen hasi nintzen. Gauzak ondo ateratzen joan ziren eta beste ikuspuntu batetik ikusten hasten zara. Baina orain ere, judoa hobby bezala daukat. Niretzat ez da lan bat, oso gustura joaten naiz baina egia da lehiatzen hasten bazara beste era batera entrenatu behar duzula. Orain ezin dut duela lau urte bezala entrenatu, lehiatzen hasi nintzenetik ordu gehiago sartzen ditut

eta lehiaketei begira serioago hasten zara entrenatzen eta ez jolas moduan.

**Judoa kirol gogorra al da?**

Astean gutxienez bost ordu sartzen ditut. Astelehen, asteazken eta ostiralean entrenatzen dut eta lehiaketak inguratzen hasten direnean astearte eta ostegunetan ere entrenatzen dut, 6 ordu gutxi gorabehera.

**Zein baldintza ditu judoak?**

Pisua eta kategoriaren arabera dago sailkatuta judoa eta kurtso hasieran erabaki behar da zein pisutan arituko zaren eta urte guztia pisu horren azpitik mantendu beharra daukazu. Nik udaran 45-46 kilo pisatzen nituen eta kilo bat baino gehiago jaitsi eta 44 kiloz azpitik lehiatzea erabaki nuen garbi ikusi nuelako aukera gehiago izango nituela. 48 kiloz azpitik jokatzeko urrutigelditzen zait.

**Beraz urte osoa 44 kiloz azpitik mantendu beharra daukazu. Ez al da sakrifizio handia?**

Pisua mantentzea ez da erraza. Beti zaindu egin behar duzu eta janarekin kontuz ibili beharra daukat. Ezin dut pila bat jan. Urte osoan mantendu ahal izateko ia egunero pisatu beharra daukat. Bestela, Gabonetan esaterako, us-

tez ondo zoaz, pisatu eta kilo bat goitik zaude. Horrelakoak ez gertatzeko ni ia egunero pisatzen naiz eta uste dut pisuan ongi ibiltzeko modurik egokiena dela. Ez dit entrenatzaileak ezer esaten baina korri egitea ere asko gustatzen zait eta pisua zaintzeko ondo datorkit nahiz eta gero sarritan bikoitza afaldu!

**Gustukoa duzunez erraz daramazu hau guztia edo ez da hala?**

Erraz eramaten dudala orain esaten dut baina badakit lehiaketa baten bezperan asko ezin dudala afaldu. Gosaldu gabe joan beharko dudala lehiatzea eta pisatu ostean gosaldu beharko dudala. Urte asko daramatzat lehiatzen eta jada mentalizatuta nago. Egun batzuk besteak baino zailago dira baina normaltzat jotzen dut.

**Zein izan da orain arteko zure ibilbidea judoan?**

8 urterekin hasi nintzenetik Judo Club Tolosan nabil eta beti Oskar

**Unerik gogorrena Espainiako Txapelketaren atarian lesionatu nintzenekoa izan zen**

Gibelalde entrenatzailearekin. Lehen aldiz lehiatzen Gipuzkoako Txapelketan alebinetan hasi nintzen eta orduz geroztik lehiaketetan nabil. 14 urterekin Espainiako Txapelketan lehen postua lortu nuen bai banaka eta taldeka. Eta

bertara iritsi ahal izateko lehenengo Gipuzkoakoa eta gero Euskadiko pasa behar izan nituen. 15 urterekin berriz (iaz) Espainiako Txapelketaren bezperatan min hartu nuen eskuan eta ezin izan nuen parte hartu.

**Urte gogorra izango zen bezaz lehenengo urtekoa?**

Bai, denboraldi osoa Espainiakora begira entrenatzen aritu eta noizbait tokatu behar zuen baina aste-bete lehenago zauritzea gogorra izan zen. Gutxienez demostratu ahal izatea nahi nuen, nahiz eta gero ez irabazi, iristea ere handia da baina behintzat parte hartu.

**Zein izan dira zure ibilbidean izan dituzun unerik txarrena eta hobereena?**

Momenturik gogorrena dudarik gabe lesionatu nintzenekoa izan zen. Ezin izango nuela parte hartu jakin nuenekoa. Hasiera batean behatz lodia aterata bakarrik nuela uste zuten eta aste bat minarekin entrenatzen jarraitu nuen. Berriz medikuarengana joandakoan esan zidaten loturak ere hautsiak nituela eta ebakuntza egin behar zidatela. Ezin nuen sinistu ezingo nuela lehiatu. Nik ebakuntza atzeratzea nahi nuen baina ez zen posible. Hoberena berriz, Espainiako irabazi nuenekoa izan zen. Euskadi mailan ongi moldatzen nintzen baina ez nuen pentsatu sekulan Espainian ezer egitea eta ez nuen espero borrokaldi guztiak irabaztea. Eta honek ate asko ireki dizkit

eta aurtentzen juniorretan, zaharragoen kontra ere lehiatu naiz.

**Lehiaketa batean zenbat borrokaldi pasa behar izaten dituzu?**

Lau burrukaldi pasa behar izaten dira gutxi gorabehera. Erraz esaten da lau burrukaldi egitea, zaila dena da lau burrukaldi irabaztea. Eta Espainiako bezalako lehiaketetan denak irabazi beharra daukazu, lehena galtzen baduzu jada kalean zaude.

**Zer esaten dizute lagun eta familiakoek?**

**Euskadiko 44 kiloz azpiko kadeteetan txapeliduna izateak Espainiakorako txartela eman dit**

Beti hitz egiten dugu eta lagunak eta familikoakorik gabe ezin duzu aurrera egin. Janarekin ez dut ondo pasatzen, hilerokoarekin ere gehiago pisatzen duzu eta nik oraindik 16 urte ditut eta pisua hartzen joan behar dut. Horrelako uneetan beti hor daude laguntza ematen.

**Zeintzuk dira aurtengorako jarriak dituzun helburuak?**

Lehenengo gauza espero ez nuena bete dut, hau da, ni kadete izanik junior mailan Madril hirugarren postua lortu nuela eta hori lortzearekin oso gusturana gogor. Gipuzko eta Euskadiko entrenamendu gisa hartu nituen eta irabazi egin nituen. Kadete mailako Euskadiko txapelketa irabaztea eta ea lesioak uzten didaten maiatzean Espainiakoan parte hartzen eta bertan ahal dudan guztia demostratu nahiko nuke. Medaila lortzen bada hobeto baina nik ahal dudan guztia eman nahi dut eta azken finean ondo jokatu. Eta baldintza asko daude, ez da bakarrik ona zaren edo ez, aurkaria, eguna, epailea...

**Eta pasa den asteburuan kadete mailan Euskadiko txapelidun geratu zara, zorionak.**

Bai, eskerrik asko. Oso ondo aterata zena dena. Erraza izan zen eta oso gustura geratu nintzen txapelketarekin. Eta orain hau lortuta, Espainiako 44 kiloz azpikorako sailkatu naizenez, gogor entrenatzen jarraitu beharko dut.

**Noiz izango duzu Espainiako Txapelketa?**

Maiatzaren 23an izango da Alacanten. Eta Espainiako irabaziko banu Europakorako sailkatuko nintzateke baina ez da erraza eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

**Aurrera begira zer?**

Ez dut inoiz pentsatu noiz utziko dudan judoa. Iritsiko da unea baina adibidez, pena emango lidake ikasketak egitera kanpora joan behar eta utzi behar izateak. Hala ere, inoiz ez dut ezinezko ikusi entrenatzaileak beti esan baitit Valentzia adibidez oso ondo dagoela eta ikasi eta entrenatzeko aukerazango nukeela. Bestetik garbi daukat ikasketak lehenengo direla eta gero judoa.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 034. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Irteerak

■ **Albiztur.** Hilaren 28an Adunako Aburuza sagardotegira irteera autobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afarria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udale-txean.

■ **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiara antolatuta du apirilaren 16rako: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkariak eta autobusak, 28 euro (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian.

### Festak

■ **Berastegi.** Gazte Festak 15:30ean mus txapelketako finalak; 18:00etan kapoera dantza emanaldia frontoian; ondoren ardo eta sagardo dastaketa pintxoekin eta toka txapelketa; 23:15ean Hesian taldearen kontzertua; gero goizaldera arte Tximeleta taldearekin dantza egitea.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Barreterapia eta garapen pertsonaleko ikastaroa martxotik maiatzera: autoestima, adimen emozionala, giza harremanak, barrea... Meditazio eta izakiaren psikologia ikastaroa

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan *El curioso caso de Benjamin Button* filma emango dute bi saio ezberdinetan, lehenengoa 19:30ean eta 22:30ean bigarrenengoa.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Mozambike, Peru eta Argentinako argazkiak ikusgai jurbilatuenean, asteartetik igandera bitarte, hilabete bukaerara arte.

■ **Hernalde.** Era guztietako argazki kameraren erakusketa, herriko ostatuan.

■ **Tolosa.** *Sida/lhesa 8 artista 8 hausnarketa* erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa Aranburu Jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikoko arbola, 3. 943 651040.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



## Neska-mutilak, baloiaren atzetik

**BERASTEGI** ■ Gazte Festak azken txanpara iritsi dira. Atzoko futbol partiden ostean, gaur ere izango da zer eginik. Gaurko da jaietako egunik garrantzitsuenak. Hasteko, 15:30etik aurrera mus txapelketako finalerdiak eta finala jokatuko dira. Lau bikotek dute txapela irabazteko aukera: I. Apezetxea eta J. Azpirozek;

I. Atxukarro eta M. Apezetxeak; Dorransoro haizpek edo M. Zubillaga eta J. Zubillagak. 18:00etan berriz, estreinakoz, kapoera dantza emanaldia izango da. Ondoren, sagardo eta ardo dastaketa, pintxo ez lagundurik. Festei amaiera emateko, Hesian talde eza-gunaren kontzertua izango da. E. EZBIZA

## A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak agurrak**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

**Mago de Oz**

**KONTZERTUAN**

**APIRILAK 4**  
**24:00**

→ **25€** AURRETIK → **28€** TAKILAN

**SALMENTA PUTUAK:** TICK-TACK-TICKET  
**IRUÑEKO TABERNAK:** ONKI MIN / BLACK ROSE  
**TOLOSA:** ZUNBELTZ  
**LEKUNBERRI:** ILARGI ETA AKER

**sala**  
**MUXU**

Antolatzailea: **yaluna**  
Laguntzailea: **DN**  
DIARIO DE NAVARRA

www.salamuxu.com Lekunberri